



EBAZPENA (2009/01 espedientea, HIRU)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, presidenteordea eta txostengile

Juan Luis Crucelegui Garate jauna, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2009ko maiatzaren 20an.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren (aurrerantzean, Auzitegiaren edo LDEAren) osoko bilkurak, goian adierazitako kideak bilduta eta txostengilea Joseba Andoni Bikandi Arana jauna izanik, ebazpen hau eman du 2009/01 espedientearen esparruan. HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAREN (aurrerantzean, HIRUren) aurka hasi zen espediente hori, ustez Lehia defendatzeko 15/2007 Legeko 1.1.a) artikulua urratzeagatik; hain zuzen ere, prezioak igotzeko gomendio kolektiboa emateagatik.

1. GERTAERAK

1.1. LDEZren AURREKO INSTRUKZIO FASEA

- (1) 2008ko urtarrilaren 22an, gertaera hauen berri izan zuen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak:

2008ko urtarrilaren 21ean, HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAK gomendatu zuen garraiolarien tarifak % 5 igotzea. Hurrengo eguneko idatzizko prentsak eta prentsa digitalak sakonki eman zuten gomendio horren berri, eta izenburu hauek erabili zituzten:

- *El Correo Digital*: "Hiru propone una subida del 5% en sus tarifas".
- *Diariovasco.com*: "Hiru propone una subida del 5% para trabajar con "garantías mínimas".
- *Deia.com*: "Hiru propone a los transportistas autónomos que suban sus precios el 5%".
- *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario de Noticias de Álava*: "Cerca de 12.500 transportistas autónomos de la CAV estudian incrementar las tarifas un 5%".
- *Gara*: "Hiru recomienda una subida del 5% en las tarifas de los transportistas".
- *Berria*: "Tarifak "gutxienez" %5 igotzeko aholkua eman die garraiolari autonomoei Hiruk".



- (2) 2008ko urtarrilaren 29an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ohar labur bat bidali zion Lehiaren Espainiako Batzordeari, sumatutako jokaerak azaltzeko, eta dokumentu-euskarriak ere igorri zizkion, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legeko 2.1 artikulua xedatzen duenarekin bat. 2008ko otsailaren 19an, Lehiaren Espainiako Batzordeak ofizio bat bidali zuen, jakinarazteko, hartutako proposamenarekin bat, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua eskudun jotzen zuela auziaz arduratzeko.
- (3) 2008ko otsailaren 25ean, LDEZk ebazpen bat onartu zuen eta, haren bidez, erabaki zuen ofiziozko zigor-espedita (Zerbitzuaren 2008/3 Espedita) hastea HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAREN (HIRUren) aurka, 2008ko urtarrilaren 21ean gomendatzeagatik garraiolarien tarifak %5 igotzea. Interesdunei eta LDEARI jakinarazi zien ebazpena, 2008ko otsailaren 29an eta 27an, hurrenez hurren.
- (4) 2008ko otsailaren 28an, HIRUren informazioa eskatzeko erabakia hartu zuen LDEZk, Lehia defendatzeko Legeko 50.1. artikulua xedatzen duenarekin bat, eta informazio hau eskatu zion:
- Elkartearen identifikazio fiskaleko kodearen zenbakia.
 - Elkartearen estatutuak, aldaketak barne.
 - Gobernu- eta ordezkari-organok eratzen dituzten kideen zerrenda.
 - Bazkideen zerrenda eta, tartean, sozietateen izenak eta helbideak eta ordezkarien izenak.
 - Elkarrekin erabiltzen dituen baliabideak erabakiak bazkideei helarazteko: web- orria, posta elektronikoa, zirkularrak, posta arrunta.
 - Elkarrekin 2005. eta 2008. urteen artean onartutako erabakien akten kopiak.
 - Elkarrekin 2005. eta 2008. urteen artean bazkideei jakinarazitako erabakien (zirkularren eta abarren) kopiak.
 - Elkarrekin 2005. eta 2008. urteen artean hedabideei (prentsari, irratitari eta abarri) igorritako adierazpenak.
 - Euskal Autonomia Erkidegoan helburu bera lortu nahian edo jarduera berean aritzen diren gainerako elkarten zerrenda.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte guztietako bazkideen kopurua.
- (5) 2008ko martxoaren 4an, HIRUren izenean eta hura ordezkatzuz, idazki hau bidali zuen Elixabete Salvatierra abokatuak:
- LEHENENGOA. HIRUK inolaz ere ez du, ez du proposatu eta ez du ezarri, tarifa finkorik afiliatutako garraiolariak ematen dituzten zerbitzuei aplikatzeko. Alde horretatik, sektoreko prezio-askatasuna argudiatu du HIRUK, eta bere asmoa izan da garraio-sektoreko prezioen igoeren berri ematea, besterik ez.



BIGARRENA. Alderdi honek ez zekien bere jokaera legez kontrakoa zenik eta, hortaz, ez zuen asmorik inongo interes publikori kalte egiteko.

HIRUGARRENA. Egiartzatu egin daiteke, esan bezala, fede onez ziharduela. Izan ere, orain arte, HIRUK guztiz errespetatu du lehiari buruzko legedia, eta ez dute zigortu eta ez dute hasi zigor-espediterik haren aurka egotzi dizkioten arrazoiak direla medio.

Horregatik guztiagatik, hau eskatu dut:

1. LDEZk erabaki dezan, hitzarmen bidez, zigor-prozedura hau amaitzea.
 2. LDEZk erabaki dezan, zigor-prozedura hau hitzarmen bidez amaitzeko eskaera ebatzi bitartean, prozeduraren bideratzea etetea.
- (6) 2008ko martxoaren 5eko Erabakiaren bitartez, LDEZk ebatzi zuen ez onartzea prozedura hitzarmen bidez amaitzea erabakitzeko eskaera, uste zuelako ezin zela onartu erabaki hori zegokion espediterearen esparruan, eta, hortaz, ezetsi egin zuen zigor-prozedura eteteko eskaera ere.
- (7) 2008ko martxoaren 13an, Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko (aurrerantzean, LDLko) 47. artikuluekin bat, HIRUK administrazio-errekurtsoa jarri zuen LDEZren 2008ko martxoaren 5eko Erabakiaren aurka. Hain zuzen ere, prozedura hitzarmen bidez amaitzea erabakitzeko eskaera ezetsi zuen LDEZk Erabakiaren bidez, eta Auzitegia arduratu da horren aurkako errekurtsoaz.
- (8) Martxoaren 27an, HIRUK jakinarazi zion LDEZri aipatutako errekurtsoa jarri zuela, eta zera eskatu zion:
1. 2008ko otsailaren 28ko jakinarazpenak aipatzen zuen informazioa aurkezteko emandako epea luzatzea erabaki zezan, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak aipatutako administrazio-errekurtsoa ebazteko behar bezain luzaroan.
 2. Halaber, aurreko paragrafoan aipatutako jakinarazpenaren bidez emandako epea zenbatzeari uztea erabaki zezan, aurkeztutako administrazio-errekurtsoa ebazten zuen bitartean.
- (9) 2008ko apirilaren 3an, Erabakia hartu zuen LDEZk, eta zera ebatzi zuen haren bidez:

LEHENENGOA. Ez onartzea, Elixabete Salvatierrak, HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAREN izenean eta hura ordezkatzuz Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegian aurkeztutako administrazio-errekurtsoa ebatzi bitartean, eskatutako informazioa aurkezteko emandako epea luzatzeko eta epea zenbatzeari uzteko eskaera.

BIGARRENA. Hala eta guztiz ere, Erabakiaren jakinarazpena hartu eta hurrengo egunetik aurrera, bost laneguneko epea ematea HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUARI, 2008ko otsailaren 28ko Erabakiaren bidez eskatutako informazioa aurkez dezan.



- (10) 2008ko apirilaren 17an, HIRUK idazki bat igorri zion LDEZri, eta zera adierazi zion:
1. Zehazpen-espeditente horren barruan idazkiak egin eta sinatu dituen abokatu honek lege-aholkularitza enpresa baterako egiten du lan, eta telefonoz eskatutako lan-enkargu baten ondorioa izan da HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUaren izenean erantzun izana.
 2. Eskatutako informazioa lortzeko gestioak egiteko orduan Lasarte-Oriako bulegoan informazio hori ez dagoela egiaztatu dut. Izan ere, Lasarte-Oriako bulegoa Hiruko Gipuzkoako Lurralde Federazioaren bulegoa da, eta ez ustez legea urratu duen HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUarena.
 3. Abokatu honek jakin izan duenez, Iruña-Okan du egoitza ustez legea urratu duen sindikatu horrek (Los Llanos Industrialdea A kalea, 13. pabiloia. Langraiz. 01230). Beraz sindikatu horri eskatu beharko zaio beharreko informazioa, eta elkarte horri bidali hemendik aurrera zehazpen-espeditente honen inguruko jakinarazpen guztiak.
- (11) 2008ko apirilaren 25ean, LDEZk Erabakia hartu zuen eta, haren bidez, erabaki zuen Euskadiko Elkarteen Erregistroari eskatzea informazio hau emateko:
- HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA garraiolari-elkarteari edo -elkarteei buruz zuen informazio guztiaren kopia.
 - Erregistroak 2008ko maiatzaren 13an bidali zuen aipatutako informazioa.
- (12) 2008ko maiatzaren 15ean, HIRUari informazioa eskatzeko erabakia hartu zuen LDEZk. Iruña Okako egoitzara bidali zuen, eta 2008ko otsailaren 28ko Erabakiaren bidez eskatutako informazio bera eskatu zion haren bidez. Alderdi interesdunak ez zuen erantzun.
- (13) 2008ko maiatzaren 30ean, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onesteko otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuko 24. artikulua xedatzen duenarekin eta Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 47.1 artikuluekin bat, LDEAk eskatu zion LDEZri espeditentearen kopia igortzeko eta aurkeztutako errekursoaren berri emateko. Izan ere, 2008ko martxoaren 13an, jakinarazi zioten HIRUK administrazio-errekurtsua jarri zuela 2008ko martxoaren 5eko Erabakiaren aurka.
- (14) 2008ko ekainaren 3an, HIRUren alegazio-idazki bat hartu zuen LDEZk, 2008ko apirilaren 25eko Erabakiaren bidez egindako informazio-eskaerari erantzuteko egindakoa. Zera zioen idazkiak:
- LEHENBIZIKOA. HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA ez da elkarte bat eta, horrenbestez, ez du haren funtzionamendua arautzeko estatuturik.



BIGARRENA. HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAK ez du elkarte-egiturarik, ez du gobernu organorik eta ez du bazkiderik.

HIRUGARRENA. HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAK ez ditu akordioak onartzen, eta ondorioz ez du mediorik horiek zabaltzeko.

LAUGARRENA. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden elkarten kideen zenbatekoaren inguruan Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistroan biltzen den informazioari lotzen gara; izan ere, ez dakigu EAEn aritzen diren elkarten zenbatekoa eta are gutxiago horietan guztietan parte hartzen duten bazkideen zenbatekoa.

- (15) 2008ko ekainaren 3an bertan, LDEZk HIRUren kontra hasitako zigorespedientearen kopia bat sartu zuen Zerbitzuak Auzitegian, helegindako erabakiak xedatutako guztia berresten zuen txosten batekin batera.

- (16) 2008ko uztailaren 23ko osoko bilkuran, HIRUK LDEZren Erabakiaren aurka aurkeztutako errekursoaz hausnartu zuen LDEAk, eta epaia eman ere egin zuen. Zera ebatzi zuen haren bidez:

LEHENENGOA. HIRU garraiolarien sindikatuak aurkeztutako errekursoa baiestea.

BIGARRENA. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eskatzea HIRUri jakinarazteko ea onargarria den prozedura hitzarmen bidez eta isunik jarri gabe amaitzea ala, ikertutako jokaera larria dela-eta adibidez, ea aukera bakarra den prozedura hitzarmen bidez eta isuna jarrita amaitzea. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egiten badu prozedura hitzarmen bidez eta isuna jarrita amaitzearen alde eta Hiruk berretsi egiten badu - isuna ordaindu behar izanik ere- prozedura hitzarmen bidez amaitzeko proposamena, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak prozedura hitzarmen bidez amaitzeko prozedura hasiko du eta, informalki, HIRU garraiolarien sindikatuaren legezko ordezkariari jakinaraziko dio zer kargu egozten dizkioten, zer froga dituzten karguen euskarri eta zer negoziazio-esparrutan amaitu behar den hasitako espedienteak, hitzarmen bidez eta isuna jarrita. Hainbat konpromisok izan behar dute negoziatio-esparru horren oinarria, besteak beste, nahitaez, Zerbitzuak egotzitako karguak onartzea eta, baldin badagokio, beste proposamen batzuk egitea egindako kaltea konpontzeko, lehia sustatzeko eta LDLren kontrako jokaerarik berriz ez izateko.

- (17) 2008ko irailaren 9an, LDEZk eskatu zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari 2008ko uztailaren 23ko Ebazpena (prozedura hitzarmen bidez amaitzeari buruzko errekursoari buruzkoa) argitzeko, hasitako espedienteak zuzen bideratze aldera.

- (18) 2008ko urriaren 15ean, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak 2008ko irailaren 30eko argibidezko autoa igorri zion LDEZri, 2008ko uztailaren 23ko Ebazpenaren bidez zigorra hitzarmen bidez txikiagotzeko xedatutako prozedurari buruzkoa. Zera zioen autoak:



1. zehapena hitzarmen bidez murrizteko tresna, prozedura betiko moduan (zehapenik gabe) amaitzeko tresnarekin batera (Lehiaren Defentsarako Legearen (LDL) 52. artikulua); hain zuzen ere, prozedura amaitzeko modu honetara aplikatuko dira haren jardute-arauak.
2. Espedientearen xede diren enpresek eskatu ahalko dute zehapena hitzarmenaren bitartez murriztua izan dadila, baldin eta zehapenik gabeko amaiera eskatu badute eta Zerbitzuak uko egin badio, edo, bestela, zehapen-prozeduraren edozein fasetan.
3. Zerbitzuari dagokio zehapenik gabeko amaiera hitzarturako jardunak hasi edo ez erabakitzea, lehiaren alorreko arazoaren arabera edo zehapen-espedientearen xede den arau-haustea kontuan hartuta. Hala ere, Zerbitzuaren ustez interes publikoak eta, batez ere, lehiaren defentsarako politikak zehapen bat ezartzea eskatzen badu (esaterako, LDLa nabarmen edo agerian hautsia izan bada), zabalik utzi beharko du zehapena hitzarmenaz murrizteko bidea.
4. Hartutako konpromisoen ordainetan zehapena hitzarmenez murrizteko prozeduraren amaieran, funtsezkoa da zein unetan eskatzen duen espedientepeko enpresak prozedura irekitzea.
 - Baldin eta zehapena hitzarmenaz murrizteko tresna Gertaerak Zehazteko Plegua (GZP) baino lehenago irekitzen bada, enpresak lagundu egin behar dio ikerketan LDEZari, enpresaren egintzak eta erantzukizuna GZP batean fede emanez egiaztatzearen. GZPari buruz egin ditzakeen alegazioetan, enpresak onartu egin beharko ditu gertaerak eta horietan duen erantzukizuna, eta horrek % 10eko murrizketa ekarriko du behin betikoaren isunaren gainean. Halaber, enpresak jokabide-konpromisoak eskaini ahal ditu, emandako kaltea ordaindu, araudia errespetatuko dela fede emanez bermatu eta lehiaren defentsa sustatzeko helburuz. Halakoetan % 30eko murrizketa gehigarri bat lor dezake behin betiko isunarekiko. Azken batean, hitzarturiko murrizketa behin betiko isunaren % 40 izan daiteke.
 - Baldin eta zehapena hitzarmenaz murrizteko tresna GZP jakinarazi ostean abiarazten bada, enpresak lagundu egin beharko dio LDEZari ikerketan, egitateak eta enpresaren erantzukizuna GZPan fede emanez zehaztuta gera daitezen. Alegazioetan, enpresak onartu egin beharko ditu egitatea, LDLa hautsi izana eta arau-hauste horretan duen erantzukizuna, eta, hala egiten badu, % 10 murriztuko zaio behin betiko isuna. Halaber enpresak jokabide-konpromisoak eskaini ahal ditu, emandako kaltea ordaindu, araudia errespetatuko dela fede emateko moduan bermatu eta lehiaren defentsa sustatzeko helburuz. Halakoetan % 15eko murrizketa gehigarri bat lor dezake behin betiko isunarekiko. Azken batean, hitzarturiko murrizketa behin betiko isunaren % 25 izan daiteke .
5. LDEZk LDEAr i zapidetutako espedientearekin batera zuzenduriko txostenean, ebazpen-proposamena sartuko da, bai eta enpresak bere gain hartutako konpromisoen ondorioz zehapena murrizteko (gertaera aringarriak aplikatzeagatik) egindako proposamena ere.
6. Ebazteko aldiari, behin espedientearen eta Zerbitzuaren Txostena jaso eta gero, azken erabakia hartu baino lehenago, Auzitegiak LDLko 51. artikuluan aurreikusitako izapideak beteko ditu.



7. Zehapena ezartzerakoan, aintzat hartuko dira zehapen-espicientearen xedeko arau-haustea nolakoa izan den (arina, larria edo oso larria) eta LDLko 64.1 artikuluan aurreikusitako irizpideak ere.
8. Espedienteren xede den enpresak hartutako konpromisoak balioetsi ondoren, ebazpen-proposamena daraman txostenean LDZak zehapena murrizteko proposatuta ehunekoa onartuko du Auzitegiak. Behin betiko zehapenari dagokionez, LDLko 64.3 artikuluan (inguruabar aringarriak) xedatutakoa oinarri hartuta ezarriko da Auzitegiak erabakitako murrizketa.
- (19) 2008ko azaroaren 3an eman zuen Erabakia LDEZk, eta 2008ko azaroaren 6an jakinarazi zion HIRUri. Zera zioen Erabakiak:
- Argibidezko autoaren 3. puntuak dioenarekin bat, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak uste du ez dela onargarria egintzak hastea prozedura hitzarmen bidez eta zigorrik jarri gabe amaitzeko, Legea nabarmen edo agerian hautsi delako.
 - Bost laneguneko epea du HIRUK, adierazteko ea zigorra hitzarmen bidez murrizteko prozedurari heldu nahi dion, argibidezko autoaren 4. puntuak dioenarekin bat.
 - Epe horretan ezer adierazten ez badu, Gertaerak Zehazteko Plegua egin behar da.
- (20) 2008ko azaroaren 18an, LDEZk Gertaerak Zehazteko Plegua onartu zuen eta HIRUri jakinarazi zion, Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 50.3 artikulua xedatzen duenarekin bat. Enpresak garaiz eta egokiro aurkeztu zituen alegazioak.
- (21) 2008ko abenduaren 11n, HIRUK 2008ko azaroaren 18ko Gertaerak Zehazteko Pleguari buruz egindako alegazioak jaso zituen LDEZk.
- (22) 2008ko abenduaren 15ean, instrukzio-fasea amaitzeko erabakia jakinarazi zion LDEZk HIRUri, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduko 33. artikulua (otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren bidez onartu zuten Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua) xedatzen duenarekin eta Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 50.3 artikuluaekin bat etorritz.

1.2. LDEAren AURREKO EBAZPEN FASEA

- (23) 2009ko urtarrilaren 9an, ebazpen-proposamena jakinarazi zion LDEZk HIRUri, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduko 34. artikulua xedatzen duenarekin eta LDLren 50.4 artikuluaekin bat, eta, besteak beste, alderdi interesdunak aurkeztutako alegazioen erantzunak eman zituen. Zera proposatu zion LDEZk LDEAri:



LEHENENGOA. Adierazteko izan direla lehia murrizteko jardunbideak, Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1.1 artikulua kontrakoak. Hain zuzen ere, jokaera hori debekatzen du Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1.1 artikulua: “taldeko (...) gomendio oro (...), helburua honako hau bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki honako akordio edo erabaki-mota hauek egongo dira debekatuta: a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea”.

BIGARRENA. Jokaera horren arduraduntzat har dezala HIRU GARRAIOLARIEN SINDIKAL KONFEDERAZIOA. HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA da HIRU GARRAIOLARIEN SINDIKAL KONFEDERAZIOAREN merkataritzako izena, G01058676 zenbakiko IFK du eta hau da sozietatearen helbidea: Los Llanos Industrialdea, A kalea, 13. pabiloia, Langraiz, 01230.

HIRUGARRENA. Lehia defendatzeko Legeko 53. artikulua aipatzen dituen gainerako adierazpenak onar ditzala.

(24) 2009ko otsailaren 3an, HIRUren alegazioak hartu zituen LDEZk, 2009ko urtarrilaren 8ko ebazpen-proposamenari buruzkoak. 50.4 artikulua arabera du eskubide hori HIRUK.

(25) Otsailaren 4an, LDEZren zigor-espedita hartu zuen LDEAk, txosten batekin batera. Txostenaren barnean, ebazpen-proposamena eta interesdunek egindako alegazioak hartu zituen.

Txostenaren 3. puntuan, zera zioen LDEZk HIRUK ebazpen-proposamenari buruz egindako alegazioei buruz: “Funtsean, alegazio hauek bat datoz 2008ko abenduaren 11n Gertaerak Zehazteko Pleguari buruz aurkeztutako alegazioekin”. Txostenaren 4. puntuan, berriz, zera zioen: “Aipatutako alegazioak ikusirik, espedita honen instruktoarak uste du alegazioak ez dutela indargabetzen inolaz ere ebazpen-proposamenean adierazitakoa, eta bere osotasunean berretsi du”.

(26) 2009ko martxoaren 25ean, LDEA eta HIRU bildu egin ziren HIRUren eskariz LDEAREN egoitzan, analizatzeko zer egoeratan zegoen orduan zigor-espedita eta aztertzeko zein izan behar zen hitzarmen on bat lortzeko ezinbesteko edukia, eta, akordio horren bidez, prozedura hitzarmen bidez eta zigorra hitzartuz amaitzeko.

Gai guztiak analizatu ondoren, HIRUK konpromisoa hartu zuen bilera horretan landutakoa zuzendaritza-organoei jakinarazteko eta, ondoren, proposamen bat egiteko LDEARI, espedita amaitzeko.

(27) 2009ko apirilaren 8an, 2009ko martxoaren 18ko osoko bilkuran onartutako erabakia jakinarazi zien LDEAK HIRURI eta LDEZRI; erabakiaren bidez, 2009/01 HIRU (Euskal Herriko Garraiolarien Sindikatua) espedita izapidetzea onartu zuen. Halaber, LDEAK jakinarazi zien HIRURI eta LDEZRI zigor-espedita hasi zuela eta Joseba Andoni Bikandi Arana Auzitegiko kide jauna izendatu zuela txostengile.



- (28) 2009ko apirilaren 22an, berriz bildu ziren LDEA eta HIRU, LDEAren egoitzan, finkatutako helburua lortzeko HIRUK egin behar zuen proposamenaren edukia zehazteko.
- (29) 2009ko maiatzaren 20an, LDEAk hausnartu eta espediente horri buruzko ebazpena eman zuen.
- (30) Alderdi interesduna da HIRU GARRAIOLARIEN SINDIKAL KONFEDERAZIOA. HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA da HIRU GARRAIOLARIEN SINDIKAL KONFEDERAZIOAren marka, G01058676 zenbakiko IFK du eta hau da sozietatearen helbidea: Los Llanos Industrialdea, A kalea, Kalea,13. pabiloia, Langraiz, 012230.



2. FROGATUTAKO GERTAERAK

2.1. ALDERDI INTERESDUNA

- (31) Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan gordetako estatutuekin bat, konfederazioa da "HIRU" GARRAIOLARIEN SINDIKAL KONFEDERAZIOA (1. artikularekin bat, siglatan, HIRU) eta, 2. artikularekin bat, euskal garraiolariak biltzea eta antolatzea du helburu, taldearen eskubideak, interesak eta xedeak antolatuta babesteko, bai jardunaren alorrean, bai haien bizimoduaren alorrean. Haren lurralde-esparrua, historikoki zehaztutakoa, Iberiar penintsulako Euskal Herriko lurraldeek osatzen dute, 5. artikularekin bat.

Garraiolarien bi federazio-mota darabiltza Konfederazioa antolatzeko, 9. artikularekin bat: alde batetik, lurraldeetan, probintzietako lurralde-federazioak eratu ditu eta, beste alde batetik, lanbidearen eta sektorearen alorrean, federazio sektorialak eratu ditu.

Hauek dira Konfederazioaren organoak:

- BILTZAR NAGUSIA. 17. eta 18. artikuluekin bat, organo nagusia da, eta lurralde- eta lanbide-federazioek hautatutako ordezkariak eta Batzorde Nazionaleko kideak eraten dute; eskubide osoko ordezkari dira Batzorde Nazionaleko kideak.
- KONFERENTZIA NAZIONALA. Biltzar Nagusien arteko organo nagusia da eta lurralde- eta lanbide-federazioek hautatutako ordezkariak eraten dute, 28. artikularekin bat.
- BATZORDE EXEKUTIBOA. Kide anitzeko organo nagusia da, sindikatuaren zeregina zuzentzeaz eta kontrolatzeaz eta haren jarraipena egiteaz arduratzen da eta sei kidek eta nazio-idazkariak eraten dute, 37. eta 38. artikuluekin bat.
- NAZIO IDAZKARIA. 41. artikularekin bat, HIRU Konfederazioaren legezko ordezkaria eta ordezkari publikoa da.

Garraiolari orok du HIRUko afiliatu egiteko eskubidea, haren estatutuak onartzen baditu eta estatutuak eta organoek ematen dituzten erabakiak betetzen baditu betiere, 55. artikularekin bat. Aurrez eraturako talde batek eskatzen badu HIRU sartzea, eskaera onartzeko, taldekide guztiak egin behar dute HIRUko kide eta, nortasun juridikorik badute, estatutuak moldatu behar dituzte eta HIRUren estatutuak biltzen dituen printzipioei eta arauari men egin behar diete, 58. artikularekin bat.

Erakunde autonomoak dira HIRU osatzen duten lanbide- eta lurralde-federazioak, eta bakoitza bere barne-arauek arautzen dute eta bere organoek zuzentzen. Alde horretatik, organo bakoitza bere eskumenen esparruan erabakitzen duenaren arduradun da, 86. artikularekin bat etorritz.

- (32) Espediente hau osatzen duten dokumentuen eta ekintzen artean, egitate hauek daude frogatuta LDEZren ustez:



2008ko urtarrilaren 21ean, HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUko idazkari teknikoak, Esteban Muruamendiarazek, eta eledunak, Estitxu Ugartek, prentsaurreko bat eman zuten, eta tarifak %5 igotzeko gomendatu zieten euskal garraiolariari, 2007an gastuetan izandako hazkundera orekatzeko.

Honela eman zuten komunikabideek prentsaurreko horren berri:

- *El Correo Digital*: “Hiru propone una subida del 5% en sus tarifas”.
- *Diariovasco.com*: “Hiru propone una subida del 5% para trabajar con “garantías mínimas””.
- *Deia.com*: “Hiru propone a los transportistas autónomos que suban sus precios el 5%”.
- *Noticias de Gipuzkoa* eta *Diario de Noticias de Álava*: “Cerca de 12.500 transportistas autónomos de la CAV estudian incrementar las tarifas un 5%”.
- *Gara*: “Hiru recomienda una subida del 5% en las tarifas de los transportistas”.
- *Berria*: “Tarifak “gutxienez” %5 igotzeko aholkua eman die garraiolari autonomoei Hiruk”.

2.2. MERKATUA

(33) Jarduera ekonomikoa

Garraio-sektoreak ekarpen nabarmena egiten dio euskal ekonomiari¹. Hain zuzen ere, 2006an, 14.352 establezimendu zeuden sektore horretan, eta Euskadiko ekonomian parte hartzen zuten establezimendu guztien %7,7 eta lanpostu guztien %4,8 osatzen zuten; zehazki, 42.331 pertsonak ziharduten sektore horretan. Bestalde, 2005ean, garraio-sektoreak ekonomiaren balio erantsi gordinaren² %4,7 sortu zuen. Ehuneko horiek guztiek antz handia dute Espainiakoekin eta Europako beste ekonomia batzuetakoekin.

Errepideko garraioa da garraio-jarduera nagusia. Zehatz-mehatz, jarduera horretan metatzen dira hamar establezimenduko zortzi baino gehixeago, hamar lanpostuko sei eta garraio-sektoreak sortzen duen aberastasunaren erdia.

Errepideko garraio-azpisektorearen nagusitasun hori 27 kideko EBn ere jazotzen da, baina hango sektorekako banaketaren erdua orekatu eta jasangarriagoa da, eta ekarpen handiagoa egiten dute trenbide eta itsaso bidezko garraioek: 27 kideko EBn, BEGaren %9,3 eta %6 sortzen dute garraio-mota horiek, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, %6,3 eta %2,4.

EAEn, salgaien barne-trafiko guztiaren %81,3 errepide bidez jazotzen da; %2,5, trenbide bidez; eta %16,2, itsaso bidez. Alabaina, 25 kideko EBn, garraio-moten

¹ Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila: Euskadiko garraioaren panoramika 2006.

² BEG da sektoreek herrialde batean aberastasuna sortzeari egiten dioten ekarpenaren adierazle nagusia.



banaketa desberdina da, eta errepideko garraioaren erabilera askoz ere txikiagoa da Euskadikoa baino. Hain zuzen ere, 25 kideko EBn, %46koa da errepideko garraioaren erabilera, baina, Euskadin, bost tonatik lau salgai gurpilen gainean garraiatzen ditugu³.

(34) **Baimenak**

Merkatuan sartzeko administrazioaren baimena behar da eta, administrazioak baimena emateko, jardunean aritzeko lanbide-prestakuntza, zintzotasuna eta ahalmen ekonomikoa behar dira. Garraio publikoan aritzeko baimena nahi duten operadore berriek, gainera, eskakizun zorrotzagoak ere bete behar dituzte, lanean hasteko behar diren ibilgailuen kopuruari buruzkoak eta haien ezaugarri jakin batzuei buruzkoak.

EAEEn, 2008ko uztaileko datuen arabera, 18.556 ibilgailuk⁴ dute baimena garraio salgaiak errepidetik garraiatzeko garraio publikoaren sektorean⁵.

Baimenen kopuruaren bilakaerari dagokionez, hazkunderik handienak 1999. urtetik aurrera jazo dira. Izan ere, urte hartan aldatu zuten merkatuan sartzeari buruzko araudia eta, bereziki, utzi egin zioten Espainia barneko garraio astunerako baimenen kuotak ezartzeari; ordura arte, lehendik emandako baimenak erosi bakarrik egin zitezkeen.

(35) **Enpresen egitura**

Garraio-sektorean, establezimendu txikiak dira nagusi. Zehazki, 2006an, hamar langile baino gutxiago zituen EAEko garraio-sektoreko establezimenduen % 94,5ek, eta % 83,6k hiru baino gutxiago. Egoera hori bereziki nabarmena da errepideko garraioan, establezimenduen % 89,4k bi langile baititu gehienez ere.

Salgaien errepideko garraioaren sektorea oso zatituta dago oraindik ere, eta enpresa guztien ia % 90 osatzen dute garraio astun publikoan aritzen diren enpresa txikiek (ibilgailu bat eta bost ibilgailu artean dituztenek). Bestalde, establezimenduen nortasun juridikoaren arabera, logikoa da autonomoen araubidearen barnean egotea gehientsuenak (guztien % 77,3).

Merkatua zatituta egote hori engainagarria izan daiteke, ez badugu kontuan hartzen, gaur egun, bitartekarien bidez antolatzen dugula merkaturia. Agentzia edo enpresa handiak izaten dira bitartekariak –oro har, berregituratu egin diren garraio-enpresak dira eta, hartara, garraiolari autonomoei jasanarazten dizkiete kostu finkoak– eta, harreman finko baten bidez azpikontratatu dute garraioa; era berean, haientzat lan egiten duten enpresa txikien bezero dira.

Gainera, gero eta gehiago, logistika-sektorearen osagaitzat hartzen dugu errepideko garraioa; horren ondorioz, garrantzi berezia dute eskaintzaren eta

³ Kontuan izan beharra dago salgaien errepideko garraioari buruzko datuak behetik daudela, 3,5 tona kargatzeko ahalmena duten ibilgailuak bakarrik hartzen baititugu aintzat estatistikak prestatzeko.

⁴ Salgaien Errepideko Garraioaren Behatokia, Sustapen Ministerioa.

⁵ Garraio publikoa besteren kontu lantzen da, soldatapean; garraio pribatua, berriz, norberaren kontu, bai behar jakin batzuei erantzuteko, bai jarduera nagusiren bat osatzeko.



eskariaren artean informazioa transmititzeko prozesuek, eta garraio-agentziak funtsezkoak dira sektorearen garapenean.

(36) Jardunaren bilakaera

Espainiako Sustapen Ministerioak salgaien errepideko garraioaren gainean etengabe egiten duen inkestak adierazten du joera nabarmena dagoela EAEn errepidetik garraiatzen dituzten salgaien kopurua hazteko. Hain zuzen ere, kopuru horren urteko hazkunde metatua %7,9koa izan da 1993 eta 2007 artean.

Salgaien errepideko garraioaren bi alorrei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu dinamikoagoa dela eskualde barneko garraioa –haren urteko tasa metatua %10,1 igo da 1993 eta 2007 artean–, eskualde artekoa baino –urteko hazkunde metatua %5,9koa izan da–.

1. taula. Salgaien errepideko garraioa EAEn. 1993 eta 2007 arteko bilakaera

	Eskualde barnekoa		Eskualde artekoa		EAEkoa	
	Milaka tona	Urteko %	Milaka tona	Urteko %	Milaka tona	Urteko %
1993	21.103	-	24.103	-	45.206	-
1994	28.158	33,4	27.516	14,2	55.674	23,2
1995	27.809	-1,1	27.915	1,5	55.724	0,0
1996	24.475	-12,0	27.371	-1,9	51.846	-7,0
1997	30.713	25,5	29.429	7,5	60.142	16,0
1998	31.627	3,0	32.582	10,7	64.209	6,8
1999	35.536	12,4	34.985	7,4	70.521	9,8
2000	41.963	18,1	37.664	7,7	79.627	12,9
2001	42.593	1,5	38.845	3,1	81.438	2,3
2002	49.176	15,5	42.625	9,7	91.801	12,7
2003	46.612	-5,2	42.572	-0,1	89.184	-2,9
2004	49.576	6,4	48.401	13,7	97.977	9,9
2005	59.659	20,3	47.449	-2,0	107.108	9,3
2006	58.634	-1,7	49.609	4,6	108.243	1,1
2007	80.166	36,7	55.838	12,5	136.004	25,6

Iturria: salgaien errepideko garraioaren gaineko etengabeko inkesta, Sustapen Ministerioa.

Bestalde, 2006an, batez beste, 593.654 tona salgai eskuztatu genituen guztira EAEn lanegun arrunt batean.

Salgaien zirkulazioaren %46,4 EAEn barnean jazo zen, eta nabarmentzekoa da eskualde barneko zirkulazioa, zirkulazio guztiaren %26,7 osatu baitzuen. %33,7, berriz, EAetik abiatu edo EAera heldu zen, baina EAetik kanpoko beste lurralde batzuek ere hartu zuten parte garraioan.

Azkenik, egun arrunt batean EAEn mugitzen dituzten tonen %19,9 igaroadikoa da.



2. taula. Salgaien errepideko garraioa urtean eta lanegun arrunt batean, 2006an

BIDAIA MOTA		TONAK URTEAN	TONAK LANEGUN ARRUNT BATEAN	EHUNEKOA %
EAE barnekoa	Eskualde barnekoa	47.485.800	158.286	26,7
	Eskualde artekoa	35.036.700	116.789	19,7
	EAE barnekoa, guztira	82.522.500	275.075	46,4
EAEtik kanpokoak	Espainia barnekoa	49.608.000	165.360	27,8
	Nazioartekoa	10.445.400	34.818	5,9
	EAEtik kanpokoak, guztira	60.053.400	200.178	33,7
Igaroaldia		35.520.300	118.401	19,9
GUZTIRA		178.096.200	593.654	100,0

Iturria: EAEko garraio-eskariaren egoera 2006an, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak eta Gipuzkoak ahalmen handiagoa dute oraindik ere salgaien bidaiak eragiteko.

3. taula. Lanegun arrunt batean errepide bidez garraiatzen diren salgaien jatorria eta helmuga, 2006an

J/H	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Araba	44.642	6.168	5.062	55.872
Bizkaia	10.799	106.660	9.799	127.258
Gipuzkoa	2.135	11.437	78.373	91.945
GUZTIRA	57.576	124.265	93.234	275.075

Iturria: EAEko garraio-eskariaren egoera 2006an, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila.

Emaitza horiek aurreko txostenaren emaitzekin alderatuz gero⁶, ikusiko dugu izugarri nabarmena dela salgaien EAE barneko zirkulazioaren hazkundera. Hain zuzen ere, %15,4 handitu da salgaien EAE barneko zirkulazioak errepideko garraioan duen garrantzi erlatiboa, eta horren arrazoia da probintzia barneko salgaien fluxuak handitzeko joera izan duela: 2003an EAE barneko garraioaren % 59 osatzen zuen, eta 2006an % 83,5.

2006an, 200.182 tona garraiatu zituzten errepidetik lanegun arrunt batean EAEtik kanpo; hau da, 200.182 tona EAEtik abiatu edo EAEra heldu ziren, baina EAEtik kanpoko beste lurralde batzuek ere hartu zuten parte garraioan. Tona horien guztien % 82,6 Espainiako beste lurralde batzuekin trukatu genituen, eta %17,4, nazioartearekin.

⁶ 2002-2003ko EAEko garraio-eskariaren azkeneko egoera.



4. taula. Lanegun arrunt batean errepidetik EAE barnera edo EAetik kanpo garraiatzen diren tonen kopurua, 2006an

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZK OA	GUZTIRA
Espainia barnekoa	42.337	75.453	47.574	165.364
Nazioartekoa	6.550	13.395	14.873	34.818
GUZTIRA	48.887	88.848	62.447	200.182

Iturria: 2006ko EAeko garraio-eskariaren egoera.

Espainia barneko fluxuaren banaketari dagokionez, probintzia mugakideekin dago salgaien truke gehien. Hartara, Espainia barneko trafikoaren %36,9 osatzen dute Nafarroak, Kantabriak eta Errioxak.

Esan bezala, salgaien EAE barneko trafikoareagotu egin da 2003. urtekoaren aldean. Espainiako beste lurraldeetako trafikoarekin, ordea, %14,8 txikitu da, eta horrek ekarri du alor horrek %5,3ko garrantzi erlatiboa galtzea EAeko salgaien trafiko osoan.

Azkenik, EAeren eta atzerriaren arteko salgaien trafikoarekin eguneko 34.817 tonakoa izan zen 2006an, eta nazioarteko zirkulazioaren %70en jatorria edo helmuga Frantzia izan zen. Zifra horiek eta aurreko txosteneko zifrak⁷ (2002-2003ko EAeko garraio-eskariaren azkeneko egoera txostenekoak) konparatzen baditugu, ikusiko dugu heren bat jaitsi dela salgaien nazioarteko zirkulazioa, baina Frantziarekiko trukeek berdin jarraitzen dutela.

(37) Sektoreko elkarteak

Sektore honetako enpresak asko mugitzen direla-eta, erreferente soilizat hartu behar dira jarraian emango ditugun datuak.

5. taula. Salgaien errepideko garraioaren sektoreko elkarteak. EAeko elkarte naqusien zerrenda

ERAKUNDEA	HEDADURA	SEKTOREA
FEVATRANS FEDERACIÓN VASCA DE ASOCIACIONES EMPRESARIALES DE TRANSPORTE DE MERCANCÍAS POR CARRETERA.	2.500 garraiolari 6.200 ibilgailu Asetravi - 1.335/2.700 Guitrans - 450/2.500 Agrupación: 629/1.024	Salgaien errepideko garraioa – Garraio-enpresak Hauek biltzen ditu: -ASETRAVI (Bizkaia) -GUITRANS (Gipuzkoa) -AGRUPACIÓN ALAVESA DE TRANSPORTES (Araba)
HIRU GARRAIOLARIEN SINDIKAL KONFEDERAZIOA	1.300 garraiolari 2.000 ibilgailu	Salgaien errepideko garraioa – Autonomoak Hauek biltzen ditu: - SINTRAGI (Gipuzkoa) - SINTRARABA (Araba)

⁷ 2002-2003ko EAeko garraio-eskariaren azkeneko egoera, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila.



EGAS EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA	300 garraiolari	Salgaien errepideko garraioa – Autonomoak
FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE TRANSPORTE DE EUSKADI	6 kooperatiba 800 garraiolari	Salgaien errepideko garraioa – Kooperatibak Hauek biltzen ditu: PUERTO DE PASAJES, CECOTRANS-BIZ, TRANS- ARABA, COALTRANS eta TRANS-OGUI
SINTRABI SINDICATO DE TRANSPORTISTAS DE BIZKAIA	650 garraiolari	Salgaien errepideko garraioa – Autonomoak
ATEIA ASOCIACION DE TRANSITARIOS DE EUSKADI	88 enpresa bitartekari Ateia Bizkaia - 53 Ateia Gipuzkoa - 35	Salgaiak – Enpresa bitartekariak
EUSKAL SEGURTASUN AHOLKULARIEN ELKARTEA	106 bazkide (ez dira garraiolariak)	Salgai arriskutsuak – Segurtasun- aholkulari profesionalak

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saila.

(38) Azkenaldiko bilakaera

Azken urteotan, krisialdi larrian sartu da garraio-sektorea, hainbat faktoreren ondorioz; faktoreon artean, nabarmentzekoak dira gasolioaren prezioaren etengabeko gorakada eta horren ondoriozko kostuen hazkundea salgaien garraio-zerbitzuen erabiltzaileei jasanarazteko zailtasunak.

Sektorearen krisialdi historikoa eta sektoreko lanbide-elkarteen erreklamazioak direla-eta, hainbat neurri hartu behar izan ditu administrazioak, haien egoera hobetzeko:

- 2001ean, Salgaien Errepideko Garraioaren Merkatuko Behatokia sortu zuen Sustapen Ministerioak, gardentasun eta lehiakortasun handiagoa izan zedin. 2008an, 14. txostena argitaratu zuen, eta zera zioen txostenak sarreran:

“Kostuen Behatokia sortu da, Errepideko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiaren babespean, Errepideko Garraioaren Espainiako Batzordeak eta zamalanetako enpresak ordezkatzeko dituzten elkarte nagusiek (AECOCek, AEUTRANSMERek eta TRANSPRIMEk) egindako bileren ondorioz –Lehorreko garraioa antolatzen Legeko 57., 58. eta 59. artikuluekin bat, garraiolarien lanbide-elkarrekin ordezkatzeko dituzten Errepideko Garraioaren Espainiako Batzordeak–. Haren helburua da salgaien errepideko garraioaren sektoreko zerbitzuak kontratatzen esku hartzen duten eragileei (garraiolariak, zamaketariak eta garraio-operadoreak) laguntzea nork bere jardunean sinatzen dituen kontratuen eta hitzarmenen baldintza ekonomikoak ezartzen”.

Zera dio Lehorreko garraioa antolatzen Legeari buruzko araudia aldatzeko urriaren 27ko 1225/2006 Errege Dekretuak:



Errepideko Garraioaren Espainiako Batzordea eta garraio-zerbitzuen erabiltzaileak ordezkatzeko elkarte nagusiei entzun ondoren, bi behatoki prestatuko eta eguneratuko ditu Sustapen Ministerioak, bidaiarien eta salgaien garraioaren kostuen bilakaera aztertzeko, eta eraginkortasun handienekotzat hartzen dituen bideetatik ezagutaraziko ditu, enpresek eta partikularrek ezagutu ditzaten.

Salgaien errepideko garraioaren merkatua handia da, izugarritzko transakzio kopurua izaten du urtean eta etengabe bilakatzen ari da; baina haren bereizgarria da eskaria eta eskaintza nabarmenki zatituta daudela eta, horren ondorioz, ez dela nahi bezain gardena. Hori guztia kontuan izanik, Kostuen Behatokiaren asmoa da enpresen erreferente bihurtzea, zailtasunak dituztenean beharrezko kudeaketa-irizpideak ezartzeko eta, horren ondorioz, merkataritza-politika egokia izan dadin ziurtatzeko, dela txikiak direlako, dela posizionamendu estrategiko eskasa dutelako.

Hortaz, ez da espero izan behar Behatokiak garraio-zerbitzu jakin baten prezioa zuzenean finkatuko duenik. Izan ere, tarifa baten berezko helburua litzateke hori, baina ez da hori Behatokiaren helburua. Aitzitik, Behatokiaren helburua da iritzi bat osatzeko datu fidagarriak ematea eta, horietan oinarrituta, kontratua egiten duten alderdiek nahi bezala hitzartu ahal izatea egokien jotzen duten prezioa eta ziur egotea hori egiten ari direla zentzuz egiaztatutako arrazoietan oinarrituta”.

- 2005eko urriaren 18an, errepideko garraio-enpresen erakundeen grebaren ondoren sinatu zuten Salgaien Garraioaren Espainiako Batzordeak, zamalanetako enpresak ordezkatzeko elkarte nagusiek eta Sustapen Ministerioak onartutako erabakien eta ondorioen dokumentua.

Arau bidez garatu zuten akordio hori, 2005eko urriaren 21eko ebazpen baten bidez. Errepideko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak eman zuen ebazpena eta, haren bidez, xedatu zuen Ministro Kontseiluak 2005eko urriaren 21ean onartutako erabakia argitaratzeko. Hain zuzen ere, errepideko garraio-sektoreari buruzko hainbat neurri garatu eta ezarri zituen Ministro Kontseiluaren erabakiak, eta 2005eko ekainaren 24ko Ministro Kontseiluaren bileran onartu zituzten neurriok, sektorearen gardentasuna eta lehiakortasuna hobetzeko.

Bereziki, B ataleko (Sustapen Ministerioaren esku-hartzeari buruzko ataleko) 6. klausulak aipatzen du salgaien errepideko garraioaren prezioak automatikoki eguneratu behar direla, gasolioaren prezioaren hazkundearen arabera:

“Sustapen Ministerioak aldatu egingo du salgaien errepideko garraioaren sektoreko zerbitzuak kontratatzeke baldintza orokorrak ezartzeko Ministro Agindua, eta klausula berri bat sartuko du, nahitaez aplikatu beharrekoa kontrakoa hitzartu ezean. Harekin bat, kontuan izanik zenbat igotzen den gasolioaren prezioa kontratua egiten dutenetik garraio-zerbitzua ematen duten arte, garraiolariak hainbestean eguneratu behar dute hasieran hitzartzen duten prezioa eta, horretarako, erreferentetzat erabili behar dituzte Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak gasolioaren batez besteko prezioari buruz argitaratzen dituen datuak eta dena delako ibilgailuaren kontsumoak (Sustapen Ministerioko Garraioaren Kostuen Behatokiak aintzat hartzen dituenak)”.



- 1997ko apirilaren 25eko Agindua (salgaien errepideko garraioaren sektoreko zerbitzuak kontratatzeko baldintza orokorrak ezartzeko agindua) aldatzeko abenduaren 9ko FOM/3947/2005 Aginduak garatu zituen Errepideko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2005eko urriaren 21eko Ebazpena eta, bereziki, B ataleko 6. klausula. Orain, zera dio A eranskineko 2.1 klausulak:

“Berariaz kontrakoa hitzartu ezean, hasieran hitzartzen duten prezioa igo dezake garraiolariak, kopuru honen arabera: kontratua egiten duenean gasolio litroak duen prezioaren eta garraio-zerbitzua eman ematen duenean gasolio litroak duen prezioaren arteko aldea bider garraio-zerbitzua emateko erabiltzen dituen gasolio litroen kopurua .

Era berean, garraioaren prezioa ordaintzera behartuta dagoenak eska dezake hasieran hitzartzen duten prezioa aurreko paragrafoan aipatu bezainbat jaisteko, baldin eta gasolioaren prezioa jaitsi egiten bada kontratua egiten duenetik garraiolariak zerbitzua eman ematen duen arte.

Betiere, erreferentetzat erabili behar da, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak argitaratzen dituen datuen arabera, gasolioak dena delako egunetan zuen batez besteko prezioa. Bestalde, kontuan hartzen den gasolio-kontsumoak izan behar du honen baliokidea: dena delako ibilgailuaren arabera, Sustapen Ministerioko Garraioaren Kostuen Behatokiak salgaien garraioaren kostuaren bilakaera finkatzeko kontuan hartzen duen kontsumoarena”.

Alabaina, lan-gatazkak etengabeak izan dira azken urteotan, eta garraiolari elkarteak konponbideak eskatzen ari zaizkio oraindik ere administrazioari.

- 2008ko ekainaren 9an, garraiolariak greba erabili zuten berriro ere presio egiteko eta, hartara, beren lan-baldintzak hobetzeko. Arrazoia izan zen gasolioaren prezioa igotzea.

Sustapen Ministerioak 2008ko ekainaren 12an bere web-orrian argitaratutako datuen arabera⁸, hau izan zen gasolioaren prezioaren igoera orduan:

IBILGAILUETARAKO GASOLIOAREN PREZIOAREN IGOERA ERREPIDEKO GARRAIOAREN KOSTUEN BEHATOKIAK JARRAIPENA EGITE ALDERA

Karga orokorreko ibilgailu artikulatua

Ibilgailuetarako gasolioaren batez besteko prezioa 2007ko urrian = 1,0027 euro/litro

Urtea	Hilabetea	Hazkundear en % (1)	Hazkundear en % (2)	Hazkundear en % (3)
2007	Urria	-	-	-

⁸ <http://www.fomento.es>



Urtea	Hilabetea	Hazkundear en % (1)	Hazkundear en % (2)	Hazkundear en % (3)
	Azaroa	4,2	4,2	1,4
	Abendua	2,6	7,0	2,4
2008	Urtarrila	-0,4	6,6	2,2
	Otsaila	0,2	6,8	2,3
	Martxoa	5,8	13,0	4,4
	Apirila	1,4	14,6	4,9

(1) Ibilgailuetarako gasolioaren prezioaren igoera aurreko hilabetekoaren aldean.

(2) Ibilgailuetarako gasolioaren prezioaren igoera 2007ko urrikoaren aldean.

(3) 2007ko urritik, gasolioaren prezioaren aldakuntzen ondorioz zuzeneko kostuetan izandako igoera.

Operadorerik txikienei egiten zien kalte handiena egoerak, eta haiexek eskatzen zioten administrazioari neurriak har zitzan galerak txikiagotzeko. Hain zuzen ere, aldarrikapen nagusia zen gutxieneko tarifak ezartzea salgaien errepideko garraioari.

- 2008ko ekainaren 11n, bi eguneko grebaren ondoren, Sustapen Ministerioak eta sektorearen % 88k (AECOCek, AEUTRANSMERek, TRANSPRIMEk eta Errepideko Garraioaren Sailak) akordio bat lortu zuten⁹, 2008ko ekainaren 9an Gobernuak hainbat sailek eta Errepideko Garraioaren Espainiako Batzordeko Salgaien Garraioaren Sailak hitzartutako akordioaren hainbat alderdi zehazteko eta garatzeko.

Akordioak dioenez, "asmoa ez da zerbitzuen azken prezioari buruzko inongo gomendiorik ematea, lehia babesteari buruz indarrean dagoen legedia urra baitezake horrek", baina erabaki hauek xedatzen ditu:

1. Hainbat klausula onartzea, automatikoki eguneratzeko salgaien errepideko garraio-zerbitzuak emateko kontratuetako prezioak, gasolioaren prezioaren bilakaeraren arabera. Hain zuzen ere, hauek dira klausulok:

- a. 20.000 kiloko edo gehiagoko gehieneko masa baimendua duten ibilgailuak, lanak egitekoak izan ezik
 $1003'0 \times x = \Delta PGP$
- b. 3.500 kilo baino gehiagoko eta 20.000 kilo baino gutxiagoko gehieneko masa baimendua duten ibilgailuak, lanak egitekoak izan ezik
 $1002'0 \times x = \Delta PGP$
- c. 3.500 kilo baino gehiagoko gehieneko masa baimendua duten lanak egiteko ibilgailuak

⁹ <http://www.fomento.es> (Prensa-oharrak)



$$1002'0 \times x = \Delta PGP$$

- d. 3.500 kilo edo gutxiagoko gehieneko masa baimendua duten ibilgailuak
 $1001'0 \times x = \Delta PGP$

Betiere,

P = garraiolariak zenbatean igo dezaketen kontratuaren bidez hitzartutako prezioa

$1/4$

G = gasolioaren prezioaren batez besteko aldakuntza-indizea (administrazioak jakinarazten duena), kontratua egiten denetik garraio-zerbitzua eman ematen den arteko aldakuntzari buruzkoa

P = kontratua egitean hitzartzen den garraio-zerbitzuaren prezioa

Gasolioaren prezioa %5 edo gehiago aldatzen bada eta, betiere, hiru hilabetean behin, automatikoki aplikatu behar dira formula horiek guztiak. Salbuespenezko egoera bakarra da, kontratua egin aurretik edo kontratua egiteko unean, berariaz eta idatziz, besterik hitzartzea.

Kontrako hitzarmenak baliogabetzat hartu behar dira, garraiolarien kalterako nabarmenki abusuzkoa bada edukia, eta ez dute indarrik, haien gaineko baldintza orokorrak osotasunean bakarrik onar edo bazter baditzake haiek proposatzen ez dituen alderdiak.

Akordio hau aplikatu behar zaie onartzen denean indarrean dauden kontratu guztiei, nahiz idatziz formalizatu kontratuak, nahiz ahoz bakarrik egin. Alde horretatik, kontuan izan beharra dago, joan den urtarrilaren 1etik, gasolioaren batez besteko prezioaren aldakuntza-indizea %19koa izan dela.

Oro har, errepideko garraio-zerbitzu guztietan aplikatu behar dira aurrez aipatutako formulak, kasuan-kasuan ematen den zerbitzuaren eta garraiatzen diren salgaien ezaugarriak direnak direla ere.

2. Garraiolariak kontratuaren bidez hitzartutako prezioa dagokion bezainbat igo ahal izatea. Jarraian emango ditugun arauen arabera egin behar dute hori, kalte-ordainetan, ibilgailua bi ordu baino gehiago dagoenean geldi, zamalanak egin behar izatearen ondorioz.

Ibilgailuak geldi ematen duen ordu bakoitzeko kalte-ordainaren zenbatekoa kalkulatzeko, ondorio askotarako eguneko errenta-adierazle publikoa bider bi egin behar da. Esan bezala, lehenengo bi orduak ez dira kontuan izan behar eta, gainera, ezin dira zenbatu eguneko hamar ordu baino gehiago.

Geldialdia egun bat baino luzeagoa bada, bigarren eguneko geldialdi-orduen kalte-ordainetan eman behar den zenbatekoa aurrez aipatu bezala kalkulatu behar da, eta zenbatekoa % 25 handitu behar da. Hirugarren egunean eta hurrengoetan, % 50 handitu behar da ibilgailua geldi dagoen ordu bakoitzeko kalte-ordaina.

3. Berariaz eta idatziz besterik hitzartu ezean, garraio-zerbitzuen prezioa faktura aurkeztu eta hurrengo 30 egunen barnean ordaindu behar da.

Kontrako hitzarmenak baliogabetzat hartu behar dira, garraiolarien kalterako nabarmenki abusuzkoa bada edukia, eta ez dute indarrik, haien gaineko baldintza orokorrak osotasunean bakarrik onar edo bazter baditzake haiek proposatzen ez dituen alderdiak.



4. Karga osoko garraioa eskatzen badiete, garraiolaria ez dago behartuta zamalanetan parte hartzera, ez beren kabuz eta ez laguntzen dieten langileen bidez, dagokion kontratuak horretara behartzen ez baditu berariaz.

5. Akordio horretan oinarrituta, elkarlanean aritu behar du azpikontratazio-katea ahal bezainbat laburtzeko irizpideak prestatzen, horrek lagundu badezake salgaien errepideko garraioaren merkatuaren segurtasun juridikoa, eraginkortasuna, arduren zehaztapena eta, azken batean, gardentasuna hobetzen.

Horretarako, egiaz zamaketari egokitzen denaren konpromisoan oinarritutako irizpideak osatu behar dira. Hain zuzen ere, zamaketariek konpromisoa hartu behar dute ziurtatzeko, garraiolariari eskatzen dieten eta haiekin kontratatzen duten garraio-zerbitzua ez dela gauzatzen azpikontratazio-kopuru jakin bat baino gehiagoren bitartez Espainiako estatuaren lurraldean, nahiz eta garraiolariari logistika-operadore edo bitartekari profesionalak izan.

Akordio hori gorabehera, garraiolarien grebara deitu zutenek (Fenadismerrek, Confedetrasek eta Antidek, alegia, sektorearen % 12k) erabaki zuten grebarekin aurrera egitea, Sustapen Ministerioaren eskaintza eskasa zelakoan¹⁰ –2005ean lortutako akordioaren multzoa 2008ko ekainaren 11n hitzartutakoaren oso antzekoa zen–.

- Azkenean, 2008ko ekainaren 16an, ofizialki amaitu zen greba, baina garraiolariak ohartarazi zuten sektoreko krisia ez zela egiaz konpondu eta mobilizazio gehiago izango zirela etorkizunean.

(39) Ondorioa

Egungo egoera ekonomikoa eta merkatuaren egiturazko ezaugarriak direla-eta, salgaien errepideko garraioaren sektorea egoera zailean dago. Batetik, oso zatikatuta dago: enpresa asko daude, gehienak oso txikiak dira neurritz eta badirudi eskaintza gehiegizkoa dela egituraz. Bestetik, gasolioaren kostuak nabarmenki igo dira; kontuan izan beharra dago sektore honetako osagai nagusietako bat dela gasolioa, eta erregaiak osatzen duela karga orokorreko ibilgailu artikulatu baten egiturazko kostuen %30 inguru¹¹. Laburbilduz, testuinguru honetan, eskaintza gehiegizkoa da eta kostuak gora egiten ari dira¹², eta bezeroekin negoziatzeko ahalmen txikiak ekar dezake garraiolarien mozkin-marjina neurri handi batean murriztea.

¹⁰ <http://www.elcorreodigital.com/vizcaya/20080613/economia>

¹¹ Garraio eta Herri Lan Sailaren simulagailua salgaien errepideko garraioaren kostuak kalkulatzeko.

¹² Nabardura bat egin beharra dago: 2008ko urrian, gasolioaren prezioak 2007ko urrian baino %11 handiagoak ziren, baina, abenduan, ez zuten batere zerikusirik maximo historikoekin (2008ko uztaileko prezioekin). Izan ere, prezioen hilabete batetik besterako aldakuntza-tasa negatiboa izan da 2008ko uztailez geroztik. Iturria: <http://www.fomento.es> (gasolioaren hilabete batetik besterako batez besteko prezioen aldakuntza-tasa Espainian).



3. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- (40) Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1.1 artikuluekin bat, “debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua honako hau bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki akordio edo erabaki-mota hauek egongo dira debekatuta: a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea”.

Auzitegi Gorena horri buruz mintzatu zen 1997ko ekainaren 28ko epaian, eta adierazi zuen, lehia askeak arautzen duen merkatu batean, berezkoa izan behar duela merkatuetan prezioak eta merkataritza-baldintzak ezartzeko askatasunak, sektore ekonomikoaren beraren elementu objektiboen kariatara; izan ere, beren kabuz jardun behar dute enpresek.

- (41) Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, 2007ko ekainaren 18ko Ebazpenaren (2006/01 *Espedientea*, ASETRAVI ebazpenaren) bidez, zigorra ezarri zuen prezioak igotzeko gomendioak onartzeagatik eta, hartara, bere egin zituen Lehiaren Defentsarako Espainiako Auzitegiak adierazitako printzipioak. Lehiaren Defentsarako Espainiako Auzitegia desagertuta dago jadanik, baina behin eta berriz egin zuen, zuzenean edo zeharka, prezioak ezartzeko taldeko gomendioen aurka. Zehazki, 1994ko otsailaren 15eko Ebazpenak (336/93 *Espedientea*, *ibilgailuak zaintzeagatik ordaindu beharreko sarien ebazpenak*) Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia aipatzen du, eta zera dio:

“Prezioei buruzko taldeko gomendioak (esplizituak zein isilekoak) egitea da lehia gehien murrizten duen jardunbideetako bat, prezioa baita lehiaren elementu nagusia. Enpresek zerbitzuak ekoizteko edo emateko baldintza objektiboetatik kanpo, prezioak gomendatzeko edo ezartzeko ahalmena izateak esan nahi du merkatuaren gaineko kontrola izatea, eta lehia askea eralda dezake horrek. Alde horretatik, berdin dio nola egiten den gomendioa; berdin dio prezioen hazkundetasuna, gehieneko prezioa, gutxienekoa edo prezio finkoa gomendatzen den. Enpresek prezioei buruz egiten dituzten hitzarmen horizontalek eta enpresa elkarteek sustatzen dituztenek ondorio onak dakarzkiete enpresei, lehiaren ziurgabetasuna eta arriskugarritasuna murrizten baitute. Alabaina, kontsumitzaileei eta, oro har, ekonomiari kalte egiten diete. Batetik, ongizatea galtzen dute kontsumitzaileek, aukeratzeko ahalmen txikiagoa dutelako. Bestetik, zerbitzuak ekoizteko edo emateko prozesuetan hobekuntzak egiteko pizgarriak galarazten dituzte. Hori dela eta, oro har, adostasuna dago beharra dagoela akordioei eta gomendioei jazartzeko eta haiek galarazteko, akordioek eta gomendioek galarazten badute edo oztopatzen badute lehia askeak ezar ditzan ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko eta zirkulatzeko prezioak eta baldintzak. Hori guztia bat dator bai doktrina ekonomikoarekin, bai lehia defendatzeko organismoen doktrinarekin. Adibide bat besterik ez ematearren, argigarria izan daiteke Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 1992ko urriaren 17ko Epaiaren (8/72 *gaia*, *Vereeniging van Cementhandelaren vs Europako Erkidegoetako Batzordea* Epaiaren) testua. Epai horrek landu zituen lehen aldiz gutxi gorabeherako prezioek lehiari dituzten ondorioak eta, hain zuzen ere, zera adierazi zuen: “Salmenta-prezioen araubidea ezartzea xedapen horren (Ituneko



85. artikuluko 1. paragrafoaren [egun, 81. artikuluko 1. paragrafoaren]) kontrakoa bada nabarmenki, gutxi gorabeherako prezioak finkatzeko araubidea ere kontrakoa da, ez baita pentsatzekoa “enpresek gutxi gorabeherako prezioak finkatzeko hitzartzen dituzten klausulek inongo baliorik izango ez dutenik”. Gainera, zera erantsi zuen: “Prezioak ezartzeak, gutxi gorabehera bakarrik izan arren, eragina du lehian, parte-hartzaile guztiek halako ziurtasunaz ikus baitezakete aurrez zein den lehiakideen prezio-politika”¹³.

- (42) LDEZri helarazi zizkion idazkietan, HIRUK ukatu egin zuen prentsaurrekoan prezioak gomendatu zizkien bazkideei; salatu zuen Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legea urratu izana; adierazi zuen HIRUren jardun-esparrua handiagoa dela LDEZren eskumenen esparrua baino; nabarmendu zuen aurkeztutako idazki bateko esaera bat oker itzuli zutela; eta argitu zuen merkataritzako izena dela HIRU, eskaini zioten zigorraren murrizketa hitzartua ez zela LDEAK hasieran iradoki zionaren berdina, eta ez zuela babestu 2008ko ekaineko greba.
- (43) LDEA guztiz bat dator LDEZren ustearekin (HIRUren ordezkariak prentsaurrekoan izan zuten jokaera Lehia defendatzeko Legeko 1.1.c artikulua kontrakoa den ustearekin), baita HIRUK aurkeztutako alegazioei buruz LDEZk egindako analisiekin ere.
- (44) Doktrina eta jurisprudentzia handia dago Espainian gai honi buruz, eta horixe hartu du erreferentetzat LDEAK. Gainera, haren erabakia bat dator Erkidegoko doktrinarekin eta jurisprudentziarekin ere.

HIRUK prezioak igotzeko gomendatu zuen prentsaurrekoan, eta LDLko 1.1.a) artikulua debekatu egiten du hori.

- (45) *2006/01 Espedientea, ASETRAVI* Ebazpeneko 61. puntuak dioenez, “Bi prentsa-oharron goiburuek eta testuek ez dute zalantzan jartzen ASETRAVIk gomendioak ematea bere bazkideei, haiek prezioak igo diezazkieten zamatzaileei (...), haien gain uzteko gasolioaren prezioa goratzeak dakartzan kostuak”. Espediente honen esparruan, berriz, prentsaurrekoan izandako komunikabideek adierazi zuten jokaera analizatu dugu eta, argi dagoen arren HIRUren jokaera LDLren kontrakoa izan zela, mezuaren analisia ezin da izan ez hain argia, ez hain zehatza, testu zehatzik ez dagoenez gero. HIRUren prentsaurrekoaz aritu ziren komunikabide guztietan hiruk *proposatu* terminoa erabili zuten; bik, *handitu*; eta beste bik, *gomendatu*. Bi egoerak konparatuz gero, ikusten da, lehen esan bezala, jokaera bera izan arren, nabarmenki ezberdina dela HIRUrena jasotzeko modua eta, horrenbestez, haren balorazioa.
- (46) HIRUren gomendioaren nolakotasuna zehazteko faktoreak ezberdinak dira ASETRAVIrena zehazteko faktoreen aldea: esan bezala, batek prentsa-oharra banatu zuen, baina besteak prentsaurrekoa eman bakarrik egin zuen, dokumentuentzako euskarririk erabili gabe; HIRUK ez zuen argitaratu ezer web-orrian; deialdiari erantzun zioten komunikabideek bakarrik eman zuten HIRUren albistearen berri, haren hedadura ez zen masiboa izan; Konfederazioaren

¹³ Auzitegiak berak azpimarratutakoa.



ordezkariek ez zuten egin beste adierazpenik; eta, azkenik, instrukzio-faseak iraun duen bitartean ez da frogatu bazkideek HIRUK iradokitako jokaerari jarraitu diotenik.

- (47) 2006/01 ASETRAVI Ebazpenak dioenez, Lehiaren Defentsarako Espainiako Auzitegiak hainbatetan zigortu zituen enpresa elkarteak, HIRUK prezioak igotzeko egindako gomendioaren antzeko jokaerak izateagatik. Halaber, Erkidegoko jurisprudentzian ageri da Europako Erkidegoa Eratzeko Ituneko 81. artikulua kontrakoa dela prezioak igotzeko taldeko gomendia¹⁴.

Justifikazina da HIRUK prezioak gomendatzea.

- (48) Lanbide-elkarteek –halakoxea da HIRU– errespetatu egin behar dute Lehia defendatzeko Legea, 2006/01 ASETRAVI Ebazpenak dioenez. Hain zuzen ere, 2004ko otsailaren 13ko Ebazpena¹⁵ aipatzen du ebazpen horrek, Lehiaren Defentsarako Espainiako Auzitegiarena; bertan, Auzitegiak errepikatu zuen zer printzipiok arautu behar duten lanbide-elkarteen jokaera, eta errepikatu zuen lanbide-elkarteek egiten dituzten gomendioek LDLa bete behar dutela.

Prezioak gomendatzeak ez du justifikaziorik, nahiz eta balioespen objektiboetan edo kostuetan oinarritu.

- (49) 2006/01 *Espedientea*, ASETRAVI Ebazpeneko 74. puntuak dioenez, “hutsala da prezioen gomendia bazkideentzako kostu errealetan oinarritu izana (...)”, eta Lehiaren Defentsarako Espainiako Auzitegia zenak “(...) aktibitate ekonomikoaren konplexutasun eta dinamismoa deskribatu ditu, non enpresa bakoitzak baduen bere kostuen egitura, enpresa-estrategia eta politika komertzial propioa”.

2006/01 *Espedientea*, ASETRAVI Ebazpeneko 77. puntuak dioenez, berriz, “Auzitegi honek uste du LDLak babesturiko lehia libreak hainbat eta hainbat egitura eta bisio enpresarialetarako aukera ematen duela eta, ondorioz, kontzeptualki eta materialki ezin dela kalkulatu batez-besteko kostu edo prezio ‘objektiborik’”.

Prezioak gomendatzearen helburua lehia murriztea da eta, hortaz, ez da behar horren ondorioen frogarik.

- (50) 2006/01 *Espedientea*, ASETRAVI Ebazpeneko 82. puntuak aipatzen du Lehiaren Defentsarako Espainiako Auzitegiak askotan azpimarratu zuela “LDLko 1.

¹⁴ 1992ko uztailaren 6ko Ebazpena (312/92 Espedientea, Almacenistas Vino Gipuzkoa).

2000ko abenduaren 1eko Ebazpena (479/99 Espedientea, Unespa).

1999ko abenduaren 23ko Ebazpena (447/98 Espedientea, Líneas Aereas 2).

Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren 1987ko urtarrilaren 27ko Epaia (Verband der Sachversicherer vs Europako Erkidegoetako Batzordea).

¹⁵ 556/03 Espedientea, Empresas Cárnicas.



artikuluaren, 1. ataleko debekuaren ondorioetara, hutsala dela gomendioaren hartzaileek gomendioa aplikatu izana, nahiz egoera hori aintzat har litekeen diruzko zigorra mailakatzerakoan”.

Legeak ez du babesten taldeko gomendioa, eta administrazioak ere ez du ezarri.

- (51) Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 4. artikulua Legeak salbuetsitako jokaerak aipatzen ditu, eta zera dio:

“Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokaerei.

Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahal batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira”.

- (52) *2006/01 Espedientea, ASETRAVI* Ebazpeneko 94. puntuak dioenez, “tarifak automatikoki eguneratzea, gasolioaren batez-beste igoeraren ondorioz, garraiolariek erabil dezaketen eskubidea dela “hitzarmenak kontrarik ez badio”. Beraz, lege ezein garraiolari ez dago behartua tarifak automatikoki eguneratzera gasolioaren prezioaren igoeran eragina izateko (...). Edonola ere, legeak ez du inposatzen, ez bultzatzen, ez babesten garraiolariek edo zamatzaileek elkar harturik egin lezaketen ezein jardura. Horrenbestez, ASETRAVIk 2006ko apirilaren 27an bere bazkideei egindako gomendioak, gasolioaren prezioa igotzeak beren prezioetan eragin zezan, ez dauka babesik ezein lege edo erregelamenduzko xedapenetan”.

Prozedura hitzarmen bidez amaitzeko mekanismoaren hedadura Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean

- (53) 2008ko uztailaren 23ko *2008/02 Espedientea, HIRU* Ebazpeneko (HIRUK LDEZren 2008ko martxoaren 5eko Erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsori buruzko ebazpeneko) zuzenbideko hirugarren oinarriak sakonki azaltzen zituen prozedura hitzarmen bidez amaitzearen ezaugarriak eta hedadura, LDLaren arabera. Gogoan izan beharra dago beste prozedura baten hasieran oinarrituta dagoela prozedura hitzarmen bidez (transakzio edo negoziazio bidez) amaitzeko formula; hain zuzen ere, prozedura horren esparruan, proposatzen dute espedientepean dauden enpresek hainbat konpromiso betetzea, haien jokaerak lehia askean sortu dituen arazoak konpontzeko eta etorkizunean lehiaren kontrako jokaerarik berriro ez izateko. Ildo horretan, konpromiso horiek ekar dezakete nork bere sektorean lehia sustatzeko ekintzak antolatzea ere.
- (54) Europako Erkidegoan, 2007ko urrian, Europako Batzordeak transakzio-prozedurei buruzko dokumentu bat argitaratu zuen, eta ekimen horrek ekarri du beste araudi bat onartzea, 773/2004/EE Erregelamenduak kartelak sortzen direnean transakzio-prozedurak garatzeari buruz dioena aldatzeko.



- (55) 16/1989 Legea erreformatu zuten azken aldietako batean, prozedura hitzarmen bidez amaitzeko aukera bildu zuen Espainiako antolamendu juridikoak (36 bis artikulua), eta lehiaren esparruko legedira eraman zuen espedienteak amaitzeko modu hori; administrazio-prozedurari buruzko legedi orokorrak aurrez ematen zuen aukera hori. 16/1989 Legeko 36 bis artikulua arautzen zuen sistemak ekarri zuen prozedura amaitzea instrukzio-fasean, Gertaerak Zehazteko Plegua onartu aurretik, eta ekarri zuen lehiaren esparruko agintariek baliabideak aurrezte eta enpresek segurtasun juridiko handiagoa izatea ere.
- (56) 15/2007 Legeari esker, nabarmenki handitu da prozedura hitzarmen bidez amaitzeko mekanismoaren hedadura debekatutako akordioak eta jardunbideak zigortzeko prozeduren esparruan. Hartara, “baldin eta ustezko arau-hausleek konpromiso batzuk hartzea proposatzen badute, eta horien bidez espedienteak irekitzea eragin duten jokaerak lehiari zituzten ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar beste bermatzen bada”, LDLko 52.3 artikulua xedatzen du aukera dagoela eskatzeko prozedura hitzarmen bidez amaitzeko fasea has dadin, Gertaerak Zehazteko Plegua onartu ondoren (karguak jakinarazi ondoren) ere, Auzitegiari proposamen-txostena igorri aurretik. Tresna berritzailea da hori zinez, eta, hari esker, beste bide bat dugu zigor-espedienteak ebazteko, interes orokorra babestuz; izan ere, interes orokorra babesteko, errepresioaz (zigorrez) gain, enpresen konpromisoak ditugu, lehia askea sustatzeko eta lehia murrizten duen jokaerarik berriz ez izateko.
- (57) Espainiako sistema juridikoaren barnean, araudi berriari esker –LDLaren 52. artikulua eta Araudiaren 39. artikulua dira haren oinarria–, aukera gehiago daude espedientepean dauden enpresen kontrako prozedura hitzarmen bidez amaitzeko, bai prozedura hasteko unearan aldetik, bai espedientepean dauden enpresen konpromisoen edukia eta haiek onartzeak dituen ondorioen aldetik.
- Europako beste sistema batzuk ikusirik (bereziki, Frantziakoa –huraxe da garatuenetako bat alor honetan– eta onartu berri duten Erkidegoko transakzio-sistema ikusirik), negoziazioaren edukia eta prozeduraren amaierako emaitza aldaraz dezake bide hori aplikatzeak, funtsezko hiru faktoreen arabera:
- Arau-hauste motaren eta espedientepean dauden gertaeren larritasunaren arabera.
 - Espedienteak kaltetutako alderdiek proposatzen dituzten konpromisoen arabera.
 - Prozesuaren zer unetan (Gertaerak Zehazteko Plegua jakinarazi aurretik edo ondoren) eskatzen den prozedura hitzarmen bidez amaitzeko mekanismoa hasteko.
- (58) LDEAK berebiziko garrantzia aitortzen dio zigor-espedienteak ebazteko tresna alternatibo honi. Gainera, legegileak argi eta garbi zabaldu du zigor-espedienteak ebazteko tresna berri horren aplikazio-esparrua eta, hala, lehia defendatzeko gure sistema modernizatu eta Europako sistemarik abangoardistenekin parekatu du. Hain zuzen ere, zigor-espediente baten esparruko isuna hitzarmen bidez murrizteko prozedura Espainian erabili zuten lehen aldian, LDEAK erabili zuen, 2008ko abenduaren 30eko 2008/03 *Espedienteak, ASFALTOS-ASFALTOAK* Ebazpena emateko. Orduan, zigortutako hiru enpresek onartu egin zuten LDLren aurkako arau-hauste batean parte hartu zutela, eta konpromisoa hartu zuten



etorkizunean asfaltoen Euskadiko merkatuan lehia bermatzeko; ordainetan, Auzitegiak nabarmenki murriztu zien isuna.

Zigorra hitzarmen bidez murriztuz, lehiaren esparruko agintariek azkar eta behin betiko amai ditzakete zigor-espedito konplexuak, eraginkortasunez kudea ditzakete beren baliabideak eta epaitegietan errekurtsorik aurkeztea galaraz dezakete; izan ere, errekurtsioek atzerapena ekar dezakete kaltetutako merkatuetan lehia izateko baldintzak berrezartzen.

- (59) 2009ko apirilaren 27an, HIRUren idazki bat sartu zen LDEAren erregistroan. Idazkiaren bidez, Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak debekatutako jokaera bat izan zuela onartu zuen HIRUK eta, halaber, zegozkion errekurtsioei uko egin zien, hainbat konponbide proposatu zituen sortutako egoera onbideratzeko, konpromisoa hartu zuen antzeko jokaerarik berriz ez izateko eta isuna ordaintzea onartu zuen. Hitzez hitz, zera zioen dokumentuak:

S/Ref.: Ezp./Esp.01/2009 – HIRU

AL TRIBUNAL VASCO DE DEFENSA DE LA COMPETENCIA

D.Patxi Agirre Uzkudun en su calidad de Secretario General de HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA, comparece en el expediente de referencia y como mejor proceda en derecho DIGO:

Que interesa a la entidad que represento la terminación más ágil posible del expediente de referencia evitándose con ello posibles dilaciones y recursos por lo que propone al Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia su terminación mediante una reducción pactada de la sanción en los términos siguientes:

1º. HIRU EUSKALHERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA, reconoce haber llevado a cabo una conducta que formalmente entra en el ámbito del artículo 1.1.a) de la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, como una recomendación colectiva de precios, cuando la organización trataba de informar a sus asociados sobre el incremento de los costes de combustible y los aspectos sociales y de seguridad relativos a su profesión.

2º. HIRU se compromete a publicar la parte expositiva de la Resolución que se dicte en este expediente en su página web y en su publicación Garraiolariak.

3º. HIRU seguirá llevando a cabo todas sus actuaciones asociativas y en particular la transmisión de información a sus asociados sobre los costes del transporte, que no han sido objeto de reproche en este expediente, sin adoptar recomendaciones en relación a los precios que deben fijar por sus servicios.

4º. Como consecuencia de lo más arriba señalado HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA acepta el pago de una multa de veinticinco mil euros (25.000 Euros).

En virtud de lo expuesto



SOLICITO del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, tenga por presentado este escrito y acepte la propuesta de terminación convencional del expediente en los términos señalados.

Vitoria-Gasteiz, 25 de abril de 2009.

S/Ref.: Ezp./Esp.01/2009 – HIRU

LEHIAREN DEFENTSARAKO EUSKAL AUZITEGIARI

Patxi Agirre Uzkudun jauna, HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAN idazkari nagusia, erreferentzian ageri den espedientean aurkeztzen da, eta zuzenbidean dagokionez, ADIERAZTEN DUT:

Ordezkatzen dudan erakundeak interesa dauka erreferentziako espediente ahalik eta arinen amai dadin, horrela geroratze eta errekurso posibleak ekiditeko. Hori dela eta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari amaiera proposatzen dio, zigorraren murrizketa hitzartu baten bidez, honako termino hauetan:

- 1. HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAK aitortzen du berak izandako jokaera bat, formalki, Lehiaren Defentsaren 2007ko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1.1.a) artikulua eremuan sartzen dela, prezioei buruzko gomendio kolektibo bat egiteari dagokionez, erakundearen asmoa izanik bere kideei informazioa ematea erregaien kostuei buruz eta lanbidearen gaineko alderdi sozialei eta segurtasunezkoen buruz.*
- 2. HIRUK konpromisoa hartzen du espediente honetan ematen den Ebazpena bere web-orrian eta Garraiolariok argitalpenean argitaratzeko.*
- 3. HIRUK jarraitu egingo du elkarteko jarduerak garatzen, batez ere bere kideei garraioaren kostuei buruzko informazioa transmititzeari dagozkionak, espediente honetan gaitzetsi ez direnak, zerbitzu horien truke ezarri beharreko prezioari buruzko gomendiorik eman gabe.*
- 4. Goian adierazitakoaren ondorioz, HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAK hogeita bost mila euroko (25.000 euro) isuna ordaintzea onartzen du.*

Azaldutakoaren arabera

ESKATZEN DIOT Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari idatzi hau aurkeztutzat onar dezan, eta espediente auzitegiaren goian adierazitako terminoetan amaitzeko proposamena onar dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 25a.



- (60) Espediente horren bidez frogatutako gertaerak ikusirik eta HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUAK bere burua erruduntzat hartzeko aurkeztutako adierazpena ikusirik, Auzitegiak ondorioztatu du Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1.1.a) artikulua kontrako jokaera izan zuela HIRUK, nahiz eta haren helburua izan zen bazkideak erregaiaren kostuen 2008ko igoserari buruz informatzea. Izan ere, prezioak igotzeko taldeko gomendioa egin zuen.
- (61) LDLko 1.1.a) artikulua hautsi zuen taldeko gomendio formal horrek, eta diruzko isuna merezi du. Isunaren zenbatekoa zehazteko, faktore hauek hartu ditu kontuan Auzitegiak:
- * HIRUK ez zien banan-banan egin gomendioa bazkideei, eta ez dago frogarik bazkideek HIRUren gomendioa aplikatu dutela.
 - * Erakundeak erruduntzat jo du bere burua, eta konpromisoak hartu ditu lehia sustatzeko; hain zuzen ere, konpromisoa hartu du Ebazpeneko azalpenak web-orrian eta *Garraiolariak* argitalpenean argitaratzeko.
 - * Garraio-sektorean lehia eta gardentasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea.

Horrekin bat, LDEAK uste du HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUARI hogeita bost mila (25.000) euroko isuna jartzea dagokiola.



Horregatik guztiagatik, aipatutako aginduak eta oro har aplikatu beharreko gainerako aginduak ikusirik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, aho batez, hau

EBATZI DU:

LEHENENGOA. Adieraztea espediente honek frogatu egin duela HIRU EUSKAL HERRIKO GARRAIOLARIEN SINDIKATUA bazkideei prezioak igotzeko gomendioa egitearen arduradun dela eta, horren ondorioz, Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1. artikuluko debekua urratu duela.

BIGARRENA. HIRUri hogeita bost mila (25.000) euroko isuna jartzea.

HIRUGARRENA. HIRUri eskatzea etorkizunean ez dezan izan zigortutako jokaera.

LAUGARRENA. HIRUri agintzea Ebazpeneko azalpenak web-orrian eta *Garraiolariak* argitalpenean argitaratzeko.

BOSGARRENA. Zigortutako enpresari 700 euroko isun hertsagarria jartzea, aurreko agindua betetzen atzeratzen den egun bakoitzeko.

SEIGARRENA. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eskatzea zain dezala Ebazpena eta, bereziki, HIRUk hartutako konpromisoak egiaz betetzen direnentz.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko maiatzaren 20an.

PRESIDENTEA
JAVIER BERASATEGI TORICES

PRESIDENTEORDEA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

KIDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI